

**MUSIKA.** Pirateria eta musika industriaren krisia hizpide izan dituzte bertan egindako hitzaldi eta eztabaidetan

## lazkoaz baliatuz, lan «garrantzitsua» egin dute disketeek MIDEMen

Frantzia, Portugal, Txile, Japonia eta Italiako ordezkariekin izan dituzte hartu-emanak

Mikel Lizarralde | DONOSTIA

Atzo itxi zituen ateak, lau egunez musika industriaren Europako elkargune garrantzitsuena izan ohi den MIDEM azokak. Aurten 11 izan dira Cannesen izan diren euskal disketeak. «Garrantzitsutzat» jo dute bertan egindako lana, eta iazko esperientzia oso baliagarria izan zaiela azpimarratu dute. Azokan euskal musikarekiko jarrera ona dela ikusi ahal izan dute.

Gor disketeak bigarren aldiz parte hartu du MIDEMen. Iaz baino esperientzia «hobea» izan dela diote. Izan ere, iaz lehen aldian zuten Cannesen, eta, Gorka Urbizuren esanetan, «zertxobait galduta» ibili ziren: «Iaztik ona, aldea sumatu dugu. Bereziki azokan mugitzaeran eta denbora hobeto aprobetxatzeko garaian. Harreman ugari egin ditugu, bereziki inguruko herrialdeetako ordezkariekin», azpimarratu du Urbizuk.

Harreman horietan, eta baita azokan izan diren hitzaldietan ere, gaur egun musikaren industrian kezka gehien eragiten duen pirateria izan dute aztergai. Hala ere, Urbizuk adierazi du euskal disketeek



Egunkaria Euskal disketeen erakusmahai, Cannesko MIDEM azokan.

izan dituzten harremanetan ez dutela horren inguruan askorik hitz egin. «Jadanik guztiok onartua dugu pirateriaren arzoa hor dagoela, eta nekagarria da beti gai beraren inguruan hitz egiten aritzea».

Metak disketeeko Asier

Zuluetauren ustez, lehenengo urteko esperientziari esker aurten «hobeto» aukeratu dituzte jo beharreko ateak. «Hala ere, azokan egindako lanaren fruituak gerora ikusiko ditugu», dio.

Askotan aipatzen den musika industriaren krisia hor dagoela egiazatu dute. Hala ere, Zuluetauren ustez, ezin dira hor geratu: «Lan egin behar dugu horri aurre egin ahal izateko gauzak asmatzeko. Izan ere, ez dut uste krisia musikarena bakarrik denik, kultur munduarena baizik».

### Beste herrialdeak ezagutzeko aukera

Oihuka disketeeko Ritxi Aizpuruaren irudiko, jaialdiak aukera bikaina eman die beste herrialdeetan nola egiten den lan ikusteko: «Musikaren industria bere handitasunean ikusi ahal izan dugu, eta hori inportantea da».

Hala ere, kompetentzia handia da: «Zer erosi badago han. Baina zaila da saltzea. Guztiok baitute zer eskaini». Oihuka-k hartu emanak izan ditu Japonia eta Txileko disketeekin. «Garrantzitsuena zure neurriko diskete bat aurkitzea da», dio Aizpuruak.

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak disketea estreinakoz izan da MIDEMen. Azoka dela eta, baikorra izan dela esan dute. Hala ere, beste herrialdeekin al-

### BALORAZIO OROKORRA

## Aurreko urteetan baino jende eta saltoki gutxiago

Diskoien salmentan izan den beherakadak eraginda, MIDEM jaialdia «geldialdi» giro batean burutu dela nabarmendu zuten atzo antolatzaileek. Lehen datuen arabera, aurreko urteetan baino bisi-tari eta erakusmahai gutxiago izan dira. Horrela, krisia eragin duten arrazoiak, eta egoera horri aurre egiteko egin beharrekoa izan dute hizpide lau egunetan zehar egin dituzten hitzaldi eta bileretan. Gaur egun jendeak Internet bidez dohainik eskuratu dezake musika, eta horri aurre egitea «zaila» da beraien ustez. Hori kontuan hartuta, musikaren industria teknologia berrietara egokitu beharko dutela uste dute, «telebista sortu zenean zinemak egin bezala».

deratuta, Euskal Herrian «gutxi» ekoiztu eta saltzen dela uste dute: «Oraindik lan asko dugu egiteko», dio Ubane Uzinnek. «Horrelako azoka bat ikas-teko oso baliagarria da».

## Laboa, Alboka, Junkera eta Oreka TX, Celtic Connections jaialdian

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskal musikaren ordezkari-tza zabala izango da datozen egunetan urtarrilaren 15etik Glasgow hirian (Eskoziako) egiten ari den Celtic Connections jaialdian. Munduan ospe handien duen jaialdia da, eta bertan izango dira Mikel Laboa, Kepa Junkera eta Joxean Goikoetxea abeslariak, eta baita Oreka TX eta Alboka taldeak.

Alasdair Fraser biolinistak eskainiko duen kontzertuan gonbidatu gisa parte hartuko dute Mikel Laboak eta Joxean Goikoetxeak, igandean. Biek parte hartu zuten, besteak beste, Fraserrek Skydance taldearekin iaz grabatu zuen diskoan.

Kepa Junkerak seigarren urtez jarraian parte hartuko du aurten, musika zeltiarreko jaialdian. Asteartean eskainiko du kontzertua, eta berarekin batera izango da Susana Seivane gaita jotzailea. Junkerak ospe handia du bertan, eta emanaldia areto nagusian izango da.

Lau egun geroago Oreka TX-en txanda izango da. Txalapartari bikoteak Glasgowko The Arch aretoan eskainiko du kontzertua. Bertan beren abestiak eskaitzeaz gain, Eskoziako hainbat taldeekin prestatutako kantutak joko dituzte. Oreka Tx-en antzera Albokak ere Eskoziako hainbat musika taldeekin eskainiko du kontzertua.

### Jaialdi entzutetsua

1994an egin zen lehen aldiz Celtic Connections. Areto bakar batean egin zen, eta oso musikari gutxi parte hartu zuten bertan. Hala ere pixkanaka ospea lortzen hasi zen, eta gaur egun nazioartean zeresan handia izan duten musikariek parte hartzen dut.

Hogei gunetan egiten da jaialdia, 20 egun irauten diu eta eguneko 10 kontzertu inguru eskaintzen dira. Ikusle kopurua ere hazten joan da. Iaz 94.000 lagun izan ziren kontzertuetan, lehen urtean aldiz 32.000.

Bertso Eguna, 2003  
Bertso Eguna 2003

URTARRILAREN 25ean

DONOSTIA  
KURSAALEKO  
ARETO NAGUSIAN  
18:00etan

ARAETAN  
21:00etan

Sarreraren erreserbak:  
(0034)943217798

www.bertsozale.com